



Elduaingo Udala
Gipuzkoa

2023KO EKAINAREN 22AN EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera mota: Udal Osoko Bilkura Berezia

Data: 2023-06-22

Ordua: Goizeko 08:30tan

Lekua: Udaletxeko Areto Nagusia

Honen bitartez eta alkatearen aginduz, aipaturiko ordu eta lekuan egingo den Ezohiko Udal Osoko Bilkurarako deialdia luzatzen dizut.

EGUNEKO GAI ZERRENDA:

LEHENGOA: 2023 GORTE NAGUSI HAUTESKUNDEETAN PARTE HARTUKO DUTEN HAUTESKUNDE MAHAIEK KIDEAK IZENDATZEA.

BIGARRENA: ELDUAINGO KONTZEJU TABERNA-JATETXEA USTIATZEKO, KUDEATZEKO ETA MANTENTZEKO ADMINISTRAZIO-KONTRATU BEREZIA ARAUTUKO DUTEN ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

HIRUGARRENA: ELDUAINGO HERRI BIDEEN ASFALTOZ ZOLAZTATZEKO PROIEKTUAREN OBREN ADMINISTRAZIO-KONTRATUA ESLEITZEKO BETE BEHARREKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIA, PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUAREN BIDEZ.

LAUGARRENA: TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEKO ESTATUTUEN ALDAKETA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Elduain, Udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deiari, 2023ko ekainaren 22an, goizeko 08:30tan, Udalaren Batzar osoa biltzen da ezohiko saioan, behean aipatzen diren zinegotziak, Oihana Amundarain Zubillaga Alkatearen presidentziarean.

AZTERGAIEN ZERRENDA:

LEHENGO PUNTUA:

2023 GORTE NAGUSI HAUTESKUNDEETAN PARTE HARTUKO DUTEN HAUTESKUNDE MAHAIEK KIDEAK IZENDATZEA

2023ko uztailaren 23an egingo diren Gorte Nagusi Hauteskundeetako espedientea ikusirik.



Elduaingo Udala
Gipuzkoa

Hauteskundetarako Lege Organiko Orokorraren 26. artikulua dioenaren arabera, hauteskunde-mahaietako kideen izendapena Udaletxetako Udalbatzetan egindako zozketa publiko bidez egin behar da.

Hauteskunde-mahaietako kideak izendatzeko zozketa publikoa egiten da, ondorengo suertatuz:

ELECCIONES / HAUTESKUNDEAK 23/07/2023

COMUNICACIÓN DE LA COMPOSICIÓN DE LAS MESAS / MAHAIEEN OSAERAREN JAKINARAZPENEA

Circunscripción Electoral Hauteskunde-barrutia GIPUZKOA	Municipio Udalerría ELDUAIN	Distrito Censal Errolda-barrutia 01	Sección Alala 001	Mesa Mahala U	Junta Electoral de Zona de Eskualdeko Hauteskunde Batzordea JUNTA ELECTORAL DE TOLOSA
---	-----------------------------------	---	-------------------------	---------------------	---

De conformidad con lo previsto en el art. 26 de la Ley Orgánica del Régimen Electoral General y a los efectos de lo establecido en los artículos 27.5 y 101.2 de dicha Ley, han sido nombrados para los cargos que se indican de los/las electores/as que a continuación se detallan:

Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 26. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri eta lege horren 27.5 eta 101.2 artikuluetan ezarritakoa betez, taularen golan adierazitako karguak betetzeko izendatu dira ondorengo hautesle hauek:

CARGO EN LA MESA MAHAIKO KARGUA	1º APELLIDO 1. ABIZENA	2º APELLIDO 2. ABIZENA	NOMBRE IZENA	D.N.I. NAN	Nº ELECTOR HAUTESLE-ZK.	DIRECCIÓN HELBIDEA
------------------------------------	---------------------------	---------------------------	-----------------	---------------	----------------------------	-----------------------

TITULARES / TITULARRAK

PRESIDENTE/A: D/Dª MAHAIBURUA: Jn / And	BARANDARAIN	AYERZA	ALAIN	72528248A	U0031	.ELDUAIN HIRIGUNEA 27 PISO PBJ ELDUAIN GIPUZKOA
1º VOCAL: D/Dª 1. MAHAIKIDEA: Jn / And	GALARRAGA	LARRETA	AINHUA	72528647X	U0055	.ELDUAIN HIRIGUNEA 34 PISO PBJ PTA ESK ELDUAIN GIPUZKOA
2º VOCAL: D/Dª 2. MAHAIKIDEA: Jn / And	CARRERA	EGUALDE	MARIA JOSE	72437725F	U0042	.ELDUAIN HIRIGUNEA 37 OLAONDO ELDUAIN

SUPLENTE / ORDEZKOAK

1º DE PRESIDENTE/A: D/Dª 1. MAHAIBURUARENA: Jn / And	LEIZA	CEBERIO	OLATZ	72477940H	U0101	.ELDUAIN HIRIGUNEA 6 POR W ARTATXU ELDUAIN
2º DE PRESIDENTE/A: D/Dª 2. MAHAIBURUARENA: Jn / And	EGUES	GURRUCHAGA	JAVIER	72457450K	U0055	.ELDUAIN HIRIGUNEA 42 ERREKALDE ELDUAIN
1º DE 1º VOCAL: D/Dª 1. MAHAIKIDEAREN 1.	AGUIRRE	AGUIRREZABALA	JOSE ANTONIO	34080021R	U0002	.ELDUAIN HIRIGUNEA 61 POR 51 PTA ESK ELDUAIN
2º DE 1º VOCAL: D/Dª 1. MAHAIKIDEAREN 2.	AGUIRRE	MUÑOZ	IBAI	73035727D	U0004	.ELDUAIN HIRIGUNEA 61 PISO PBJ PTA ESK ELDUAIN GIPUZKOA
1º DE 2º VOCAL: D/Dª 2. MAHAIKIDEAREN 1.	NAZABAL	BEOBIDE	UNAI	72599957C	U0134	.ELDUAIN HIRIGUNEA 13 POR 8 PISO PBJ ELDUAIN
2º DE 2º VOCAL: D/Dª 2. MAHAIKIDEAREN 2.	AURKIA	AGIRRETXE	ARKAITZ	72486019R	U0023	.ELDUAIN HIRIGUNEA 28 ANEKONE ELDUAIN

FIRMA / SINADURA



Elduaingo Udala
Gipuzkoa

SR/A PRESIDENTE/A DE LA JUNTA ELECTORAL DE ZONA DE JUNTA ELECTORAL DE TOLOSA
...ESKUALDEKO HAUTESKUNDE-BATZORDEKO LEHENDAKARIA JUNTA ELECTORAL DE TOLOSA
N. 2

BIGARRENA PUNTUA:
ELDUAINGO KONTZEJU TABERNA-JATETXEA USTIATZEKO, KUDEATZEKO ETA
MANTENTZEKO ADMINISTRAZIO-KONTRATU BEREZIA ARAUTUKO DUTEN
ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIA ONARTZEKO PROPOSAMENA

Elduaingo Kontzeju taberna-jatetxea ustiatzeko aukera emakida administratibo arautzeko baldintza ekonomiko administratiboen plieguen berri ematen da.

SINA601b7d51-c114-4fa8-9671-9b374b93217d



Elduaingo Udala
Gipuzkoa

Pleguaren xedea da Elduaingo Kontzeju taberna-jatetxea ustiatzeko aukera emakida administratibo arautzea da.

Eta, besterik gabe, Udal Batzarrak ahobatez

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Aurkeztua izan den era berean baldintza plegua onartzea. Akta agiriari pleguaren kopia erantsiko zaio (I. Eranskina).

BIGARRENA: Hartutako erabakiaren berri ematea pleguan araututako prozeduraren arabera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz eta Bandoa plazaratuz.

HIRUGARRENA: Alkate Lehendakariari esku ematea erabaki hauek gauzatu daitezzen beharrezkoak diren agiriak sinatu ditzan.

HIRUGARRENA PUNTUA:

ELDUAINGO HERRI BIDEEN ASFALTOZ ZOLAZTATZEKO PROIEKTUAREN OBREN ADMINISTRAZIO-KONTRATUA ESLEITZEKO BETE BEHARREKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIA, PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUAREN BIDEZ

Kontratu honen xedea da Elduaingo herri bideetako kalteturik dagoen eremuetan zoladura berriztatzea.

Hori guztia, Eneko Iturbe Rekondo Arkitektu Teknikoak burututako obra proiektuaren arabera -SPKL-ren 13. artikulua dion bezala- zeinak kontratuaren bidez asetzen dituzten behar administratiboak eta kontutan izan beharreko bestelako faktoreak jasotzen dituen. Proiektu horrek, SPKL-ren 233. artikulua aurreikusten dituen dokumentu oro jasotzen ditu, bere lanetan SPKLEO-ko 124tik 134-rarte doazen artikuluen xedatutakoa betez.

Kontratuaren objektuaren ezaugarriak hauek dira:

- Objektua: ELDUAINGO HERRI BIDEAK ASFALTOZ BER ZOLAZTATZEKO OBRAK.
- CPV kodea: 45233222-1
- Obrak burutzeko epea: 2 aste (14 egun natural).

2017ko SPKLren 101.8 artikuluari jarraituz, kontutan hartuko den prezioa egingo diren lanei dagokien aleko prezioa izango da, esleipendunak eskainitakoa.

2017ko SPKLren 101.1 artikuluan (EDL 2017/226876) aurreikusitako ondorioetarako,



Elduaingo Udala
Gipuzkoa

kontratuaren balio zenbatetsia 65.822,93 eurokoa da (BEZ sartu gabe): 55.313,39€ (exekuzio materiala), 10.509,54€ (gastu orokorrak eta etekin industrialak).

Proiektuaren lizitazio-aurrekontua guztira 65.822,93 euro (gehi BEZa) eta 79.645,75 euroko kopururaino igotzen da BEZa barne.

Kontuan harturik aurrekontuaren arabera, kontratazio organoa Udalbatzarra dela.

Eta besterik gabe gaiaren bozketa egiten da, honako emaitzarekin: alde bozkatu dute EH Bilduko 5 zinegotziak.

Eta gertatutako emaitzaren arabera, Udalbatzarraren legezko gehiengo osoaren aldeko botoekin, ERABAKI DA:

LEHENA: Onartzea elduaingo herri bideak asfaltoz ber zolaztatzeko obraren proiektua, Eneko Iturbe Rekondo Arkitektu Teknikoak egindakoa, 65.822,93 eurokoa (BEZ sartu gabe): 55.313,39 euro (exekuzio materiala) eta 10.509,54€ (gastu orokorrak eta etekin industrialak).

BIGARRENA: Obra esleitzeko administrazio klausula zehatzen agiria onartzea.

HIRUGARRENA: Kontratu honek eragingo duen gastuari aurre egiteko 2023 urteko udalaren aurrekontuan adinako kreditua egozteko konpromisoa hartzea.

LAUGARRENA PUNTUA:

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEKO ESTATUTUEN ALDAKETA ONARTZEKO PROPOSAMENA

1.- 2019ko urriaren 24an egindako bilkuran, Tolosaldeko mankomunitateko Batzarrak erabaki zuen estatutuen aldaketa jardunbideari hasiera ematea eta hori bideratzeko aholkularitza juridikoa kontratatzea.

2.- 2020ko uztailaren 13an, Batzarrak estatutuak berritzeko proiektuaren lanketa zerbitzua adjudikatu zuen.

3.- Batzarrak, 2020ko urriaren 8an egindako bileran, erabaki zuen estatutuak berritzeko mahai teknikoa izendatzea, guztiak Batzorde Iraunkorreko kideak.

1.- En sesión celebrada el día 24 de octubre de 2019, la Asamblea de la Mancomunidad de Tolosaldea acordó iniciar el procedimiento de modificación estatutaria y contratar asesoría jurídica para su elaboración.

2.- El 13 de julio de 2020, la Asamblea adjudicó el servicio de elaboración del proyecto de modificación de estatutos.

3.- La Asamblea en reunión celebrada el 8 de octubre de 2020 acordó nombrar a la mesa técnica para la modificación de los estatutos, todos ellos miembros de la Comisión Permanente.



Elduaingo Udala
Gipuzkoa

4.- 2022ko martxoaren 14an estatutuak aldatzeko proposamena aurkeztu zen Batzarrean.

5.- 2022ko azaroaren 7an, Batzarrak hasierako onespena eman zion Tolosaldeko mankomunitateko estatutuen aldaketari.

6.- Estatutuak aldatzeko proiektua jendaurrean jarri zen hilabete batez, 2022ko azaroaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (215 zk.) eta kide diren udalen iragarki tauletan argitaratutako iragarkien bidez.

Jendaurrean erakusteko izapidean hiru alegazio idatzi aurkeztu ziren: Berrobiko Udalarena, Larraulgo Udalarena eta Andoaingo Udaleko talde sozialistarena.

7.- 2023ko urtarrilaren 30ean, Batzarrak alegazio horiek ebatsi, estatutuak aldatzeko proiektua onetsi eta espedientea Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea erabaki zuen, dagokion txostena egin zezan.

8.- Gipuzkoako Foru Aldundiak aldeko txostena egin zuen, nahitaezkoa eta ez loteslea, 2023ko martxoaren 20an.

9.- 2023ko apirilaren 3an, Tolosaldeko mankomunitateko Batzarrak erabaki du Gipuzkoako Foru Aldundiak bere txostenean proposatutako aldaketa gomendioak txertatu ondoren, mankomunitateko udaletara igortzea, beren udalbatzek behin betiko onetsi ditzaten.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Eskumena

Udalbatzak du eskumena, estatutuen aldaketa onartzeko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. Artikuluaren b) eta p) atalek eta Tolosaldeko Mankomunitateko estatutuen 60 artikulua

4.-La Presentación en la Asamblea de la propuesta de modificación de estatutos se realizó el catorce de marzo de 2022.

5.- El 7 de noviembre de 2022 la Asamblea aprobó inicialmente la modificación de los Estatutos de la Mancomunidad de Tolosaldea.

6.- El proyecto de modificación de los estatutos fue sometido a información pública por plazo de un mes mediante anuncios publicados en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 215, de 14 de noviembre de 2022 y en los tablones de anuncios de los Ayuntamientos que integran la mancomunidad.

En el trámite de información pública se presentaron tres escritos de alegaciones del Ayuntamiento de Berrobi, del Ayuntamiento de Larraul y del grupo socialista del Ayuntamiento de Andoain.

7.- Con fecha 30 de enero del 2023, la Asamblea acordó resolver dichas alegaciones, aprobar el proyecto de modificación estatutaria y remitir el expediente a la Diputación Foral de Gipuzkoa para la emisión del informe correspondiente.

8.- La Diputación Foral de Gipuzkoa emite informe favorable, preceptivo y no vinculante, con fecha 20 de marzo de 2023.

9.- Con fecha 3 de abril de 2023, la Asamblea de la Mancomunidad de Tolosaldea acordó que, una vez incorporadas las propuestas realizadas por la Diputación Foral de Gipuzkoa, remitir a los Ayuntamientos de la Mancomunidad para su aprobación definitiva por sus Plenos.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Competencia

El Pleno es competente para aprobar la modificación de los Estatutos, de conformidad con lo dispuesto en los apartados b) y p) del artículo 22 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local y en el artículo 60 de los



Elduaingo Udala
Gipuzkoa

<p>xedatutakoaren arabera.</p> <p>Aldaketa hau onartzeko gehiengo osoa behar da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2 g) artikuluen arabera.</p> <p><u>Araudia</u></p> <p>Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena: 22, 44 eta 47 artikulua.</p> <p>Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa, Euskadiko Autonomia Estatutua onartzen duena: 37.3 c) artikulua.</p> <p>Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa: 101-103 artikulua.</p> <p>Azaroaren 27/1983 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Osoko Erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foro organoen arteko harremanei buruzkoa: 7 a) 3 artikulua.</p> <p>Apirilaren 10eko 6/2007 Foru Araua, Gipuzkoako lurralde historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituena: 1-17 artikulua; 29 eta 30 artikulua, besteak beste.</p> <p>Tolosaldeko mankomunitatearen estatutuak 60 artikulua.</p> <p>128/2018 Errege Dekretua, martxoaren 16koa, gaikuntza nazionala duten Toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duena 3.3 d) 1 artikulua.</p> <p><u>Gaiaren azterketa</u></p> <p>Estatutuak aldatzeko arrazoiak dira:</p> <p>1.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 Foru Arauari egokitzea, bere xedapen iragankor</p>	<p>Estatutos de la Mancomunidad de Tolosaldea.</p> <p>La aprobación de esta modificación requiere mayoría absoluta, según el artículo 47.2 g) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.</p> <p><u>Normativa</u></p> <p>Artículos 22, 44 y 47 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.</p> <p>Artículo 37.3 c) de la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, por la que se aprueba el Estatuto de Autonomía para el País Vasco.</p> <p>Artículos 101 a 103 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.</p> <p>Artículo 7 a) 3 de la Ley 27/1983, de 27 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los órganos de sus Territorios Históricos.</p> <p>La Norma Foral 6/2007, de 10 de abril, reguladora de las entidades de ámbito supramunicipal del Territorio Histórico de Gipuzkoa: artículos 1 a 17; artículos 29 y 30, entre otros.</p> <p>Artículo 60 de los Estatutos de la Mancomunidad de Tolosaldea.</p> <p>Real Decreto 128/2018, de 16 de marzo, por el que se regula el régimen jurídico de los funcionarios de Administración Local con habilitación de carácter nacional, artículo 3.3 d) 1.</p> <p><u>Análisis del tema</u></p> <p>Los motivos para modificar los Estatutos son los siguientes:</p> <p>1.- Adecuación a la Norma Foral 6/2007, de 10 de abril, reguladora de las entidades de carácter supramunicipal del Territorio Histórico de</p>
---	---



Elduaingo Udala
Gipuzkoa

<p>bakarrak agindu bezala.</p> <p>2.- 56. artikulua aldatzea, udalen ekarpenak kalkulatzeko erabiltzen diren irizpideak estatutueta islatzeko.</p> <p>3.- Genero ikuspegia txertatzea: idazketa aldetik gaztelaniazko bertsioa bere osotasunean berrikusi eta, oro har, gizonezko eta emakumezkoen berdintasuna arautzeko legeak isla izan dezan.</p> <p>Gipuzkoako Foru Aldundiak aldeko txostena eman du.</p> <p><u>Prozedura</u></p> <p>Bi araudi uztartu behar dira:</p> <p>Tolosaldeko mankomunitatearen estatutuen 60. Artikulua eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalez Gaindiko Erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko, 6/2007 Foru araua.</p> <p>Bi araudiak uztartuta Tolosaldeko mankomunitateko estatutuen aldaketa prozedura ondorengoa da:</p> <p>a) Estatutuen aldaketa proposatzea Batzarrari dagokio, ukituko duen alderdia zehaztuz.</p> <p>b) Aldaketa proiektua egitea Batzorde iraunkorrari dagokio. Hala ere, Mankomunitatea osatzen duten udalerrien erdiak ere ekin diezaike proiektua egiteari.</p> <p>c) Batzarrak onartzea, gehiengo soilez, eta gainera, gehiengo soil horrek, gutxienez, Mankomunitateko udalen erdia ordezkatu beharko du.</p> <p>d) Erabakia jendaurrean erakustea hilabeteko epean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz eta doakien udaletxeetako iragarki tauletan</p>	<p>Gipuzkoa, en los términos establecidos en su disposición transitoria única.</p> <p>2.- Modificar el artículo 56 para reflejar en los estatutos los criterios que se utilizan para el cálculo de las aportaciones de los municipios.</p> <p>3.- Integración de la perspectiva de género: desde el punto de vista de la redacción, se revisa la versión en castellano en su integridad y, en general, se refleja la ley para la igualdad de mujeres y hombres.</p> <p>La Diputación Foral de Gipuzkoa emite informe favorable.</p> <p><u>Procedimiento</u></p> <p>Hay que combinar dos normativas:</p> <p>Artículo 60 de los Estatutos de la Mancomunidad de Tolosaldea y Norma Foral 6/2007, de 10 de abril, reguladora de las Entidades Supramunicipales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.</p> <p>El procedimiento de modificación de los estatutos de la mancomunidad de Tolosaldea, combinando ambas normativas, es el siguiente:</p> <p>a) Corresponde a la Asamblea proponer la modificación de estatutos, determinando el ámbito al que va a afectar.</p> <p>b) La elaboración del proyecto de modificación corresponde a la Comisión Permanente, pudiendo adoptar también la iniciativa la mitad de los municipios de la Mancomunidad</p> <p>c) Aprobación por la Asamblea por mayoría simple, que deberá representar, al menos, a la mitad de los municipios integrantes de la Mancomunidad.</p> <p>d) Información pública por plazo de un mes mediante publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y exposición en los tablones de anuncios</p>
--	--



Elduaingo Udala
Gipuzkoa

<p>erakutsiz.</p> <p>e) Batzarrak erabakiko ditu alegazio, eragozpen eta oharpen horiek.</p> <p>f) Horren ondoren, estatutuen aldaketa Foru Aldundiaren iritzira makurtuko da epe berdinean, eta hori iragaten bada iritzirik eman gabe aldekotzat hartuko da.</p> <p>g) Txosten hori egin bada edo horretarako arauzko epea iragan bada, edukia ikusi ondoren sustatzaileak beharrezkotzat jotzen badu, dei egingo dio berriro Batzarrari estatutueta antzeman diren irregulartasunak zuzentzeko.</p> <p>h) Mankomunitateko udal guztietako Udalbatzek onetsiko dituzte behin betiko, kidetariko legezko kopuruaren gehiengoak aldeko botoa emanik.</p> <p>i) Estatutuen testu osoa, bere aldaketekin, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.</p> <p>Tolosaldeko mankomunitateak bete ditu estatutuen aldaketarako prozedura betekizunak.</p> <p>Idazkariak egin du alde aurreko txostena, 128/2018 Errege Dekretuak, martxoaren 16koa, gaikuntza nazionala duten Toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duenak, 3.3 d)1 artikuluan eskatzen duena.</p> <p>PROPOSAMENA</p> <p>Lehenengoa: Tolosaldeko mankomunitatearen estatutuen aldaketa onartzea, artikuluz artikulua, genero ikuspegia txertatuz gaztelaniazko bertsioan.</p> <p>Zehazki, ondorengo artikulua aldatzea onartzen da:</p>	<p>de los Ayuntamientos correspondientes.</p> <p>e) Dichas alegaciones, objeciones y observaciones serán resueltas por la Asamblea.</p> <p>f) A continuación, la modificación de los estatutos será sometida a la consideración de la Diputación Foral por idéntico plazo, transcurrido el cual sin emitirse, se entenderá favorable.</p> <p>g) Si dicho informe ha sido emitido o ha transcurrido el plazo reglamentario para ello y a la vista de su contenido el promotor considera necesario convocará a la Asamblea para subsanar las irregularidades detectadas en los estatutos.</p> <p>h) Los estatutos se aprobarán definitivamente por el Pleno de todos los Ayuntamientos de la Mancomunidad, con el voto favorable de la mayoría del número legal de miembros de la misma.</p> <p>i) Publicar el texto íntegro de los Estatutos, con sus modificaciones, en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.</p> <p>Los requisitos procedimentales para la modificación de estatutos han sido cumplidos por la Mancomunidad de Tolosaldea.</p> <p>La Secretaria ha emitido el informe previo exigido por el artículo 3.3 d) 1 del Real Decreto 128/2018, de 16 de marzo, por el que se regula el régimen jurídico de los funcionarios de Administración Local con habilitación de carácter nacional.</p> <p>PROPUESTA</p> <p>Primero: aprobar la modificación de los estatutos de la mancomunidad de Tolosaldea, por artículos, incorporando la perspectiva de género en su versión en castellano.</p> <p>En concreto, se admite la modificación de los siguientes artículos:</p>
--	---



Elduaingo Udala
Gipuzkoa

ARTIKULUA	ALDAKETA PROPOSAMENA	ONARTUA GEHIENGO OSOZ	EZ ONARTUA
5. artikulua	5. artikuluari eransten zaio: Hala nola, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalaz gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 foru araua aplikatuko zaio.	X	
Artículo 5	Se añade al artículo 5 Tales, como la Norma Foral 6/2007, de 10 de abril, reguladora de las entidades de ámbito supramunicipal del Territorio Histórico de Gipuzkoa.		
9. artikulua	Mankomunitatearen egoitza Tolosako Plaza Zaharra 6 zk.an dago, Gipuzkoa. Bere egoitza elektronikoa: tolosaldekomankomunitatea.eus delarik.	X	
	La Sede de la Mancomunidad se ubica en la Plaza Vieja nº 6 de Tolosa, Gipuzkoa. Siendo su sede electrónica: tolosaldekomankomunitatea.eus		
11. artikulua	Eransten zaio 4. Atala: Mankomunitateak bermatuko du zerbitzu berriak emateak ez diela eragingo horietara atxikitzen ez diren udalei.	X	
	Añadir el apartado 4. 4.- La Mancomunidad garantizará que la prestación de nuevos servicios no afecte a los municipios que no se adhieran a los mismos.		
16. artikulua	Eransten zaio 3. Atala: 3. Mankomunitatea bere organoen osaeran emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua bermatzen saiatuko da, non sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkariak izango duen, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legean adierazitakoaren arabera.	X	
	3.- La Mancomunidad intentará garantizar en la composición de sus órganos una representación equilibrada de mujeres y hombres, en el que cada sexo esté representado al menos por el 40%, conforme a lo señalado en la Ley, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres.		
18. artikulua	Artikuluaren hasierari eransten zaio: Batzarra udalerrri mankomunatu bakoitzeko ordezkari banak osatzen du	X	

SINA601b7d51-c114-4fa8-9671-9b374b93217d



Elduaingo Udala
Gipuzkoa

	Añadir al inicio del artículo 18: 1. La asamblea se compone por un representante de cada municipio mancomunado.		
19. artikulua	19. artikuluari eransten zaio: Udalerrri bakoitzaren parte hartzeak eguneratuko dira mankomunitatearen organoak eratzten diren bakoitzean.	X	
	Se añade al artículo 19: Las participaciones de cada municipio se actualizarán cada vez que se constituyan los órganos de la mancomunidad.		
23. artikulua	d) atala aldatzen da: d) Estatutuen aldaketan onespina	X	
	Se modifica el apartado d) d) Aprobación de modificaciones de los Estatutos		
25. artikulua	5. azpiatala eransten zaio: 5. Batzorde Iraunkorreko kideak izendatzeko, hautagaiak gehiengo osoz onartu beharko dira lehen bozketan, gehiengo soilarekin bigarren bozketan, eta adostasunik ez badago, lehendakariak hautatuko ditu.	X	
	Añadir el apartado 5: 5.- Para designar a los/as miembros de la Comisión Permanente, los candidatos/as deberán ser aprobados por mayoría absoluta en primera votación, por mayoría simple en segunda votación, y en defecto de acuerdo, serán elegidos por el Presidente		
46. artikulua	3. azpiataleko a) puntua aldatzen da: a) Estatutuen aldaketa proiektua	X	
	Modificar el apartado a) del artículo 46.3: a) Modificación del proyecto de estatutos.		
55. artikulua	55. artikuluari eransten zaio: Estatutu hauetako 11.2 atalean aurreikusitakoa betez ematen diren zerbitzu berriak, Udalen eskariz, eskatzaileek soilik ordaindu beharko dituzte. Bat baino gehiago izango balira, zenbatekoa interesaturiko Udalen artean banatuko da. Mankomunitateak bermatuko du zerbitzu berriak emateak ez diela eragingo horietara atxikitzen ez diren udalei.	X	
	Añadir al artículo 55: Los nuevos servicios que se presten en ejecución de lo previsto en el artículo 11.2 de los presentes Estatutos, a solicitud de los Ayuntamientos serán		

SINA601b7d51-c114-4fa8-9671-9b374b93217d



Elduaingo Udala
Gipuzkoa

	<p>satisfechos exclusivamente por los solicitantes. Cuando fueren varios, el importe se repartirá entre los Ayuntamientos interesados.</p> <p>La Mancomunidad garantizará que la prestación de los nuevos servicios no afecte a los Ayuntamientos que no se adhieran a los mismos.</p>		
56. artikulua	<p>56. artikulua 2 eta 3 atalak aldatzen dira eta 4 eta 5 atalak eranstean zaizkio</p> <p>2.- Udalen ekarpenak udalerrri bakoitzaren biztanle kopuruaren proportzioan eta udal bakoitzak eskatutako bilketa sistemaren arabera kalkulatu dira. Biztanle kopuruaren kalkulurako, Mankomunitateko kide diren udalerrietako erroldetan ofizialki erregistratutako biztanle-kopurua erabiliko da. Kasuan kasuko udal-idazkariek ziurtagiri bat egingo dute urtero, eta ziurtagiri horretan adieraziko dute zein den dagokion zifra, idazkari guztientzat zehazten den egun zehatzean.</p> <p>3.- Zerbitzu bakoitzari dagozkion udalen ekarpenak kalkulatzeko irizpideak, erak eta epeak garatu eta zehaztuko ditu Batzarrak botoen bi hereneko gehiengoarekin, gainera gehiengo horrek, gutxienez, mankomunitateko udalen bi heren ordezkatu beharko du.</p> <p>4.- Urteko aurrekontu proiektuak udalerrien urteko ekarpen finko eta aldakorrei buruzko azterlana jasoko duen eranskina barneratuko du.</p> <p>5.-Ez ordaintzeak arduradun den udala eskubideez gabetzea ekarriko du. Mankomunitateak ez dizkio bere zerbitzuak emango horrelako kasuan dagoen Udalari bere obligazioak betetzen ez dituen bitartean. Horretarako, Batzorde Iraunkorrak diru sarrera egin dezan errekerituko dio Udalari eta hiru hilabeteko epean hala ez badu egiten, eta ezinbesteko arrazoirik ez badu, Mankomunitateak ez dio zerbitzurik emango egun hartatik aurrera. Eskubideez gabeturiko Udalen ordezkariak ezin esku hartuko dute botazioetan, eta kasu bakoitzean beharko diren gehiengoaren kontaketa ere ez dira kontuan hartuko.</p> <p>Udal horiek Batzorde Iraunkorreko partaide badira, eskubide gabe geratzearen ondorioz, Batzorde horretan dituzten eskubideak baliorik gabe geldituko zaizkie.</p>	X	
	<p>Modificar los apartados 2 y 3 y se añaden los apartados 4 y 5 al artículo 56:</p>		



Elduaingo Udala
Gipuzkoa

	<p>2.- Las aportaciones municipales se calcularán proporcionalmente al número de habitantes de cada municipio y en función del sistema de recogida de residuos solicitado por cada uno de ellos. Para el cálculo de la población se utilizará el número de habitantes registrados oficialmente en los respectivos padrones de los municipios miembros de la Mancomunidad. Los/las correspondientes Secretarios/as municipales emitirán un certificado anualmente informando cuál es la respectiva cifra en la fecha concreta que se determine para todos ellos.</p> <p>3.- Los criterios de cálculo, forma y plazos de las aportaciones municipales correspondientes a cada servicio serán desarrollados y determinados por la Asamblea por mayoría de 2/3 de los votos, además esta mayoría deberá representar al menos 2/3 de los Ayuntamientos de la Mancomunidad.</p> <p>4.- Los proyectos presupuestarios anuales, deberán incluir un anexo con el estudio de las aportaciones fijas y variables de los municipios.</p> <p>5.- El impago dará lugar a la suspensión de derechos del Ayuntamiento responsable. La Mancomunidad dejara de prestarle sus servicios en tanto no se ponga al corriente de sus obligaciones. A tal efecto, la suspensión se iniciará cuando requerido al efecto por la Comisión Permanente y no concurriendo causa de fuerza mayor, el Ayuntamiento no hiciere el ingreso en el plazo de tres meses desde la notificación. Los representantes de los Ayuntamientos suspensos no podrán intervenir en los debates y votaciones, ni serán tomados en consideración a los efectos del cómputo de las mayorías requeridas en cada caso.</p> <p>Si formaren parte de la Comisión Permanente, la suspensión alcanzará igualmente al ejercicio de sus derechos en ésta.</p>		
60. artikulua	<p>60. artikulua honela idatzita geldituko da: Estatutuen aldaketa burutzeko jarraitu beharreko prozedura ondokoa izango da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ekimena ukituko duen alderdia zehaztuz dagokio: Lehendakaritzari edo Batzarreko legezko ordezkari kopuruaren herenari edo Batzorde iraunkorrari edo guztira zuzenbideko biztanleria 25.000 biztanle edo gehiagokoa daukaten bost Udali gutxienez. - Aldaketa proiektua egitea Batzorde Iraunkorrari dagokio. Hala ere, 	X	

SINA601b7d51-c114-4fa8-9671-9b374b93217d



Elduaingo Udala
Gipuzkoa

	<p>Mankomunitatea osatzen duten udalerrien erdiak ere ekin diezaioke proiektua egiteari.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Batzarrak estatutuen proiektua onartuko du 46.3 atalean aurreikusitako gehiengoz. - Proiektua onartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta dagokion udaletako iragarki oholean jarriko da ikusgai hilabeteko epean. - Behin publikaturik Foru Aldundira bidaliko da honek informa dezan. Hilabeteko epean honen inguruko iritzirik ematen ez baldin badu, hau aldekotzat hartuko da. - Estatutuak Udal guztietako Udalbatzek onetsiko dituzte behin betiko, kideatariko legezko kopuruaren gehiengoak aldeko botoa emanik. - Erabakia onartuta, estatutuen testu osoa, bere aldekotekin, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da. 		
	<p>El artículo 60 quedará redactado de la siguiente forma:</p> <p>El procedimiento a seguir para la modificación de los Estatutos será el siguiente:</p> <ul style="list-style-type: none"> - La iniciativa, determinando el ámbito a que haya de afectar, corresponderá a la Presidencia o a una tercera parte del número legal de representantes en la Asamblea o a la Comisión Permanente o a cinco Ayuntamientos, al menos, con una población total de derecho igual o superior a 25.000 habitantes. - La elaboración del proyecto de modificación corresponderá a la Comisión Permanente, pudiendo adoptar también la iniciativa la mitad de los municipios de la Mancomunidad - La Asamblea aprobará el proyecto de estatutos por la mayoría prevista en el artículo 46.3. - Aprobado el proyecto se procederá a su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y exposición en los tablones de anuncios de los ayuntamientos correspondientes, por el plazo de un mes. - Tras la publicación se remitirá a la Diputación para que ésta informe. Si en el plazo de un mes ésta no ha emitido informe, 		

SINA601b7d51-c114-4fa8-9671-9b374b93217d



Elduaingo Udala
Gipuzkoa

	<p>se entenderá favorable.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Los Plenos de todos los Ayuntamientos aprobarán definitivamente los Estatutos con el voto favorable de la mayoría del número legal de sus miembros. - Tomada la decisión, se deberá publicar en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el texto íntegro de los estatutos con sus modificaciones. 		
61. artikulua	61. Artikulua ezabatzen da.	X	
	Se suprime el artículo 61		
62. artikulua	Eransten zaio 6. Atala: Ondoren estatutuen aldaketa eman beharko da.	X	
	Una vez aprobada, deberá darse la modificación de los estatutos.		
63. artikulua	63. artikuluari eransten zaio: Behin hau eginda, 6/2007 foru arauaren 10.3 artikulua arabera banatzeak, estatutuak aldatzeko ezarritako arauak betetzea ekarriko du.	X	
	Se añade al artículo 63: Una vez hecho esto, de conformidad con el artículo 10.3 de la norma foral 6/2007, las separaciones, traerán consigo el cumplimiento de las normas establecidas para las modificaciones de los estatutos.		
64. artikulua	64. artikuluari eransten zaio: Desegiteko, 6/2007 foru arauaren 12 artikulua arabera, estatutuak aldatzeko ezarritako arauak bete beharko dira.	X	
	Se añade al artículo 64: De conformidad con el artículo 12 de la norma foral 6/2007, para la disolución se cumplirán las normas para la modificación de los estatutos.		
65. artikuluari	1. atalari eransten zaio: Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatu beharko da.	X	
	Se añade al apartado 1 Este acuerdo deberá ser publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.		
Bigarren xedapen gehigarria	3. atala eransten zaio: Ondoren estatutuen aldaketa eman beharko da.	X	
	Se añade el apartado 3: 3.- A continuación deberá darse la modificación de los Estatutos.		



Elduaingo Udala
Gipuzkoa

Zazpigarren xedapen gehigarria	Zazpigarren xedapen gehigarriari eransten zaio: Hortaz gain, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalez Gaindiko Erakundeak Arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 foru araua ere aplikatuko da.	X	
	Se añade a la disposición adicional séptima: Además de ello, será de aplicación también, la Norma Foral 6/2007, de 10 de abril, reguladora de las entidades de ámbito supramunicipal del Territorio Histórico.		

Bigarrena.- Tolosaldeko mankomunitateari bidaltzea estatutuen aldaketa onartzen duen osoko bilkuraren erabakiaren ziurtagiria.	Segundo.- Remitir a la Mancomunidad de Tolosaldea certificación del acuerdo plenario por el que se aprueba la modificación estatutaria.
--	---

Besterik gabe, 08:38an, Presidentetzak batzarra amaitutzat jo du, eta akta hau egin dut, nik, idazkari honek, gertaturiko guztia zehatz jasota. Fede ematen dut

O.E.

Alkateak,

Udaleko idazkari - kontu-hartzailea,

Oihana Amundarain Zubillaga,

Maria Pilar Garmendia Miguel



Elduaingo Udala
Gipuzkoa

I.ERANSKINA



Elduaingo Udala
Gipuzkoa

ELDUAINGO KONTZEJU TABERNA-JATETXEA USTIATZEKO, KUDEATZEKO ETA MANTENTZEKO ADMINISTRAZIO-KONTRATU BEREZIA ARAUTUKO DUTEN ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIA.

-I-

KONTRATUAREN IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ESKUDUN JURISDIKZIOA

1.- KONTRATUAREN IZAERA

Agiri honen xede den kontratua administrazio-kontratua berezia da, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratuei buruzko 159 artikulua ezartzen duenaren arabera. Definitutako kontratua administrazio-kontratua berezia kalifikatzen da.

Era horretako kontratuak inola ere ez du esan nahi lan-harremanik dagoenik Elduaingo Udalaren eta kontratistaren artean; beraz, inola ere ez dira aplikatzekoak izango lan-arloko zuzenbidearen xedapenak.

2.- ARAUBIDE JURIDIKOA.

Kontratua hau administrazio-kontratua da, eta Agiri honetan ezarritakoak eraenduko ditu kontratuaren prestaketa, esleipena, ondoreak eta azkentzea; Agirian aurreikusten ez denerako, berriz, honakoak aplikatuko dira: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen azaroaren 8ko 9/2017 legea gainera, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak ere aplikatuko dira, eta, horiek ezean,

PLIEGO DE CLAÚSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES QUE HAN DE REGIR EL CONTRATO ADMINISTRATIVO ESPECIAL PARA LA EXPLOTACIÓN, GESTIÓN Y MANTENIMIENTO DEL BAR-RESTAURANTE KONTZEJU DE ELDUAIN.

-I-

CARÁCTER, RÉGIMEN JURÍDICO DEL CONTRATO Y JURISDICCIÓN COMPETENTE.

1.- CARÁCTER DEL CONTRATO

El contrato objeto del presente pliego es de carácter administrativo especial, tal y como establece el artículo 159 de la Ley de Contratos del Sector Público 9/2017, de 8 de noviembre. El contrato definido tiene la calificación de contrato administrativo especial.

En ningún caso ni circunstancia, este tipo de contrato supondrá la existencia de relación laboral entre el Ayuntamiento de Elduain y el contratista, por lo que en ningún modo le serán aplicables las disposiciones de derecho laboral.

2.- RÉGIMEN JURÍDICO.

Este contrato tiene carácter administrativo y su preparación, adjudicación, efectos y extinción se regirá por lo establecido en este Pliego, y para lo no previsto en el, será de aplicación la Ley de Contratos del Sector Público, 9/2017, de 8 de noviembre, supletoriamente se aplicaran las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, las normas de derecho privado.



Elduaingo Udala
Gipuzkoa

zuzenbide pribatukoak.

Kontratuaz eta Administrazio-klausula Zehatzen Agiri honetaz gain, kontratu izaera dauka Ondasunen Inbentarioak; inbentario horretan xehatuta jasotzen dira kontratistari entregatzen zaizkion ondasunak.

Kontraesanik balego Administrazio-klausula Zehatzen Agiri honen eta espedienteari erantsitako gainerako dokumentazio teknikoaren artean, agiri honetan xedatutakoa gailenduko da.

3.- ESKUDUN JURISDIKZIOA

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioak izango du eskumena kontratu honetako aldean artean sor daitezkeen desadostasunak ebazteko, azaroaren 8 ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legean xedatutakoaren arabera.

-II-

KONTRATUAREN EDUKIA

4.- KONTRATUAREN XEDEA.

Agiri honen xedea da Elduaingo udalaren jabetzakoa den Kontzeju taberna-jatetxearen ustiatu eta kudeatzea.

5.- HAUTAKETA- ETA ESLEIPEN-PROZEDURA.

Kontratua prozedura ireki eta tramitazio arrunt bidez esleituko da; interesa daukan

Además del contrato y de este Pliego de Clausulas Administrativas Particulares, tiene carácter contractual el Inventario de bienes en el que se detallan los bienes que se entregan al contratista.

En caso de contradicción entre el presente Pliego de Clausulas Administrativas Particulares y el resto de la documentación técnica unida al expediente, prevalecerá lo dispuesto en este pliego.

3.- JURISDICCIÓN COMPETENTE

El Orden Jurisdiccional Contencioso-Administrativo será el competente para resolver las controversias que surjan entre las partes en el presente contrato de conformidad con lo dispuesto la Ley de Contratos del Sector Público, 9/2017, de 8 de noviembre.

-II-

CONTENIDO DEL CONTRATO

4.- OBJETO DEL CONTRATO.

El presente Pliego tiene por objeto la contratación de la explotación y gestión del bar-restaurante Kontzeju de Elduain.

5.- PROCEDIMIENTO DE SELECCIÓN Y ADJUDICACIÓN.

La forma de adjudicación del contrato será el procedimiento abierto, y tramitación ordinaria, en el que todo empresario/empresaria o persona



Elduaingo Udala
Gipuzkoa

enpresaburu edo/eta pertsona autonomo orok aurkez dezake proposamena, eta ezingo dira negoziatu kontratuaren baldintzak lizitzaileekin, azaroaren 8ko 9/2017 Sektorre Publikoko Kontratuen Legearen 156-158. artikulua dioenari jarraiki.

Proposamenak baloratzeko eta eskaintzarik onuragarriena zein den zehazteko, kontratuaren xedeari zuzenean dagozkion irizpideak hartuko dira kontuan, azaroaren 8ko 9/2017 Sektorre Publikoko Kontratuen Legeak dioenari jarraiki.

6.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA.

Kontratu-jarduerari buruzko informazioaren gardentasuna eta eskuragarritasun publikoa ziurtatzeko helburuz –eta publizitaterako beste bide batzuk ere erabil daitezkeen arren–, Udal honek badu Kontratatzailearen Profila, eta www.elduain.eus araututako zehaztapenen arabera sar daiteke profil horretara.

7.- KONTRATUAREN IRAUPENA.

URTEBETEKOA izango da kontratuaren iraupena, kontratua sinatu eta ustiapenaren xede den espazioko giltzak entregatzen diren hurrengo egunetik aurrera.

SEI HILABETEKO frogaldia ezartzen da.

Kontratu hau urtez urtez luza daiteke, hiru urtetan zehar eta ondoren, bost urtetartako luza liteke kontratua baldin eta alde biak haien oniritzia adierazten badute eta udalak aterako duen momentu horretan

autónoma interesada podrá presentar una proposición, quedando excluida toda negociación de los términos del contrato, de acuerdo con el artículo 156-158 de la Ley de Contratos del Sector Público, 9/2017, de 8 de noviembre.

Para la valoración de las proposiciones y la determinación de la oferta más ventajosa deberá atenderse a varios criterios directamente vinculados al objeto del contrato, de conformidad con la Ley de Contratos del Sector Público 9/2017, de 8 de noviembre.

6.- PERFIL DEL CONTRATANTE.

Con el fin de asegurar la transparencia y el acceso público a la información relativa a su actividad contractual, y sin perjuicio de la utilización de otros medios de publicidad, este Ayuntamiento cuenta con el Perfil de contratante al que se tendrá acceso según las especificaciones que se regulan en la página web siguiente www.elduain.eus.

7.- DURACIÓN DEL CONTRATO.

